

GRADU AMAIERAKO LANA  
LITERATURA ZIENTIFIKOAREN BERRIKUSKETA KRITIKOA

2021/2022-KO IKASTURTEA  
Gasteizko Erizaintza Unibertsitate-Eskola

# ZAIN ULTZERAK: ZAURIA BIZITZAREN ARDATZA BILAKATZEN DENEAN

ZAIN ULTZEREK BIZI-KALITATEAN DUTEN  
INPAKTUA AZTERTZEN

LITERATURA BERRIKUSKETA KRITIKOA  
EGILEA: Leire Veá Seijo  
DATA: Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoa  
HITZ-KOPURUA: 5932

## ***ESKERRAK***

Prozesu honetan zehar nireki egon direnei.  
Nire familiari eta lagunei, nire alboan egoteagatik.  
Nire Gradu Amaierako Laneko tutoreari, Yolanda,  
prozesu honetan zehar nire gida izan dena  
eta beti laguntzeko prest aurkeztu dena.

# AURKIBIDEA

<b>SARRERA</b>	<b>4</b>
<b>ESPARRU KONTZEPTUALA</b>	<b>5</b>
<b>HELBURUA</b>	<b>9</b>
<b>METODOLOGIA</b>	<b>9</b>
DISEINU MOTA	9
BILAKETA PROZESUA	9
BARNERATZE ETA KANPORATZE IRIZPIDEAK	10
ARTIKULUEN AUKERATZE PROZESUA	11
ZUHAITZ KATEGORIALA	11
<b>EMAITZAK ETA EZTABAIDA</b>	<b>12</b>
<b>ONDORIOAK</b>	<b>24</b>
<b>MUGAK</b>	<b>25</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b>	<b>26</b>
<b>ERANSKINAK</b>	<b>30</b>
I.ERANSKINA: CEAP ESKALA2	30
II.ERANSKINA: SF-36 ESKALA ETA CCVUQ	31
III. ERANSKINA: KONTZEPTU-TAULA	36
IV. ERANSKINA: BILAKETA-ESTRATEGIA	37
VI. ERANSKINA: IKERKETA KUANTITATIBOKO AZTERKETEN	
IRAKURKETA KRITIKORAKO GIDOIA	43
VIII. ERANSKINA: KONTSULTATUTAKO LITERATURAREN LABURPEN-TAULA	47
IX. ZUHAITZ-KATEGORIALA	61

# SARRERA

**ESPARRU KONTZEPTUALA:** Zain ultzerak zain gutxiegitasunaren ondorioz beheko gorputz adarretan ematen diren azaleko lesio ohikoenak dira. %50 kronikoak dira eta errekurrentzia handiko zauriak dira. Haren agerpena pazienteei haien bizi-estiloan aldaketak egitera bortxatzen ditu. Izan ere, horiek pairatzen dituzten pertsonen dependentzia mailaren handipena, isolamendu soziala, osasun mentalaren okertzea eta lan absentismoaren arazoak adierazten dituzte besteak beste. Honek ultzerak pertsonen bizi-kalitatean efektu negatiboa izatea eragiten du. Horregatik, erizaina gaitz honetan aditua izatea berebizikoa da, tratamenduaren eraginkortasuna handitzeko, bizi-kalitatea hobetzeko, orbaintze denbora jaisteko eta osasungintzaren gastuen murrizketarako.

**HELBURUA:** Zain-ultzerak pertsonen bizi-kalitatean duten eragina eta hura baldintzatzen dituzten faktoreak aztertzea.

**METODOLOGIA:** Literatura berrikuspen kritikoa da erabilitako diseinua. Bilaketa Medline, Cuiden, CINAHL, EMBASE, IME, LILLACS, PsycINFO eta WOS datu baseetan eta ebidentzia zientifikoko oinarritutako UpToDate, Chrocrane Database, NICE eta RNAO-ko erakundeetan burutu da. Eskuzko bilaketa *Journal of Tissue Viability*, *International Wound Journal* eta *Journal of Wound Care* aldizkarietan egin da. Aukeratutako artikulak 2012-2022 tartean argitaratutakoak dira eta ingelesez, portugesez edota gazteleraz daude. Horrela, 15 artikulok lortu dira.

**EMAITZAK:** SF-36 eskala generikoaren eta CCVUQ eskala espezifikokoaren balioak aztertuz, ZUak dituzten pertsonen bizi-kalitatearen narriadura aurkezten dute. Honek bizi-kalitatea baldintzatzen duten arlo guztietan eragin nabaria du. Ultzeraren klinikagatik edota bendajeengatik mugitzeko zailtasunak, atsedean hartzeko ezintasuna, isolamendu soziala, sexualitate ohituren alterazioa, autoirudi kazkarra eta lan-arazoak bezalako ondorioak adierazi dituzte pazienteek. Honez gain, BZK adina, egoera ekonomikoa, ikasketa-maila, zauriaren ezaugarriak eta zauria aktibo daraman denbora baldintzatzen duten faktoreak direla ikusi da.

**ONDORIOAK:** Zain-ultzerak errekurrentzia handiko eta kronifikatzeko joera duten prebalentzia handiko lesioak dira, bizitzako arlo ezberdinak eta BZK erasaten dutenak. Modu honetan, prebentzioarekin eta tratamendu holistikoki egokiarekin ultzeraren inpaktua bizitzako alderdi ezberdinetan kontrolatzen saiatu behar da.

**HITZ-GAKOAK:** "Varicose Ulcer", "Venous Ulcer", "Quality of life"

# ESPARRU KONTZEPTUALA

Zain ultzerak (ZU) hankan edo oinean aurkitu daitezkeen azaleko lesio irekiak dira<sup>1,2</sup>. ZUak zain gutxiegitasunaren (ZG) ondorio dira, honek eragindako disfunczio balbularrak errefluxu patologiko anbulatorioa sortarazten baitu<sup>3</sup>. Errefluxu horrek beheko gorputz adarreko azaleko zainetan, zain sakonetan eta zain zulatzaileetan presio handipena eragiten du, zain hipertentsio anbulatorioa (ZHTA) deritzon fenomeno eraginez<sup>1,2</sup>. ZHTAk beheko gorputz-adarretako azaleko mikrozikulazioa kaltetzen du<sup>3-5</sup>. Ondorioz, azaleko nutrizioa oztopatzea ez ezik, ZHTAk alterazio hemorreologiko itzulezinak eragiten ditu: endotelio-leukozito atxikidura, kapilarretako iragazkortasun handipena, erradikal askeen sorkuntza, hematien nahiz leukozitoen migrazioa ehunen interstiziora eta, azkenik, ehunen-infartua<sup>2,3,6</sup>. Horrek, ultzera-aurreko azaleko lesioak eragiten ditu (adibidez lipodermatoesklerosia), gerora ultzeretan bilakatu daitezkeenak<sup>7</sup>. Honela, ZUak eboluzio luzeko ZHTAren azkenengo zantzu klinikoa bezala har daitezke<sup>7</sup>.

ZG bitan bereizten da etiologiaren arabera: primarioa eta sekundarioa<sup>3</sup>. ZG primarioa (kasuen %70-80) bilakaera moteleko gaixotasuna da eta balbula disfunczioa alterazio patologiko batengatik edota akats idiopatikoa batengatik ematen da<sup>3,4</sup>. Bestalde, ZG sekundarioetan (kasuen %20-30), balbula disfunczioa sindrome post-tronbotikoarengatik ematen da<sup>3,4</sup>. Etiologia ohikoena ZG primarioa den arren, haren ultzera prebalentzia 10 urtera %25-30koa da<sup>3</sup>. Etiologia sekundarioaren kasuetan, berriz, tratamendu egokirik gabe ultzerak garatzeko aukera %80koa da eta ultzeren eboluzioa okerragoa izan ohi da<sup>3,4</sup>.

Ultzerak hankaren beheko hereneko barneko aurpegian kokatzen dira eta haien ezaugarrien artean ondo definitutako ertzak, forma biribila, fibrinaz osaturiko ohantze horia, atrofia zurizko ehun periultzeretako eta pulsu periferikoen presentzia dago<sup>1,8</sup>.

Ultzera mota hauek beheko gorputz adarretan ematen diren lesio ohikoenak dira, kasuen %80a baitira<sup>3,4,7</sup>. Izan ere, munduko %1-3 pertsoneri erasaten die, Europan 2.2 million pertsona inguruk pairatzen dituztelarik<sup>4,7</sup>. Espainia mailan, biztanleria helduaren artean ZUen prebalentzia %0,5-0,8koa da eta ultzera aktiboa edo orbaingia dutenen biztanleriaren portzentaia %1ekoa, 65 urtetik aurrera balore hori %5 igotzen delarik<sup>3,7</sup>. Era berean, ZUak ohikoagoak dira emakumeen artean, 7-10eko proportzioan<sup>3,5</sup>. Modu honetan, adina eta sexua ez ezik, ZUak pairatzearen arrisku faktore esanguratsuenen artean zain gutxiegitasuna, obesitatea, eta sedentarismoa edo bipedestazioan luzez ematea daude<sup>1,3,4,9</sup>.

Gainera, bataz-beste ZUen %50 kronikoak dira, hots, ultzerak orbaintze prozesuaren inflamazio fasean geratzen dira, hurrengo faseen aktibazioa oztopatuz eta zauriaren itxiera eragotziz<sup>4,7</sup>. Horren ondorioz, ZUak gutxi gorabehera 9 hilabetez aktibo mantentzen dira, %93a lehengo 12 hilabeteetan sendatuz eta gainontzeko %7a 5 urteren ostean sendatu gabe mantenduz<sup>7</sup>. Besteak beste, gorputz masa indize altua, nutrizio defizitak, giro tenperatura hotza eta adin aurreratua lotzen dira orbaintzearen atzerapenarekin<sup>4</sup>. ZUen kronifikazioagatik konplikazio anitz ager daitezke, hala nola zelulitisa, infekzio larria, neoplasien garapena edota osteomielitisa, mugiezintasuna eta bizi-kalitatearen murrizpena eragin dezaketenak<sup>4</sup>. Gainera, kronifikazioaz gain, ZUen errekurrentzia dago, sendatzea eman eta hiru hilabetera %50 izatera heldu daitekeena<sup>7</sup>.

ZGren larritasuna sailkatzeko CEAP eskala daukagu, klinika, etiologia, anatomia eta patofisiologiaren akronimoa dena<sup>2,3,10</sup>. Honek gaixotasuna zain dilatatuaren, edemaren, azal alterazioen edota ultzeren presentziaren arabera sailkatzen du, C5 ZU aktiboa eta C6 ZU orbaindua adierazten duelarik<sup>9</sup>.

ZUren diagnostikoa historia klinikoan, zauriaren ezaugarrietan, sintomatologian eta pultsuen haztapenean oinarritzen da<sup>1,2,4</sup>. Bestetik, haien tratamenduari begira, konpresio-terapian eta zauriaren zainketa lokaletan (desbridamendua, garbiketa,...) oinarritzen da<sup>9,11</sup>. Konpresio-terapia ZUen sendaketarako ezinbestekoa da, haren erabilera 16 asteetan ZUen %76a orbaintzearekin lotzen baita<sup>4</sup>. Prebentziorako beharrezkoa da ere, ultzeren errekurrentzia konpresio-terapia ez burutzearekin lotzen baita<sup>5</sup>. Era berean, honen erabilpena astutasun sentzazioaren eta edemaren murrizpenarekin lotu da<sup>5</sup>.

ZUak pazienteei haien bizi-estiloa aldatzera bortxatzen ditu, haien bizitzako dimentsio ezberdinetan inpaktu handia izanez<sup>7</sup>.

Alde batetik, ZUak osasun fisikoaren dimentsioan eragin handia dute haiei lotutako klinikagatik; azkura, astutasun sentzazioa gorputz adarrean, gaueko karranpak eta egunean zehar okertzen den edema besteak beste<sup>1,4,6,9</sup>. Klinika horrek atsedean hartzeko zailtasunak eragiteaz gain pertsonen dependentzia maila areagotzen du, haien mugikortasuna murriztuta ikusten baita<sup>1,3,7</sup>. Bestalde, mina eta usaina bezalako sintomen ondorioz pertsona anitzek sozialki bazterturik egoteren eta euskarri sozialik ez izatearen pertzepzioa daukate, isolatzera eraman ditzakeena<sup>3</sup>. Aipatutakoa ez ezik, %71ak ZGari loturiko klinika ere nozitzen du, hala nola barizeak edota telangiektaziak oin eta orkatiletan (%53); atrofia zuria, lipodermatoesclerosia edota zain dermatitisa (%15); eta edema edota alderantzizko xanpain-botilaren deformazioa hankaren beheko atalean (%19)<sup>1,2,4,8</sup>.

Honez gain, ZUak eragin ekonomiko handia dute pertsonetan<sup>4</sup>. Izan ere, errekurrentzia handiko prozesua izateak pazienteen artean lan absentimoaren nahiz langabezia tasen handipena ematea eragiten du<sup>1,4</sup>. Estimaten da urtero ZUak dituzten pertsonak ZUrik gabeko pertsonak baino lau lan-egun gehiago galtzen dituztela<sup>4</sup>. Gainera, haien tratamendurako baliabide ugariaren nahiz osasun profesional anitzen kontsulten beharra dago<sup>4,6,7</sup>. Modu honetan, lehengo 12 asteetan orbaintzen duen zauriaren tratamendua 400-500€-ko kostua du eta 12 astean eta 6 hilabeteen artean orbaintzen duen zauriak, berriz, 900-1000€-ko kostua<sup>3</sup>. Hortaz, pertsonan ez ezik, ZUak inpaktu handia dauka osasun sistemaren alderdi ekonomikoan<sup>12</sup>. Izan ere, estimaten da ZUak Europar Batasuneko Osasun Sistema Nazionalaren aurrekontuen zeharkako gastuen %1,5-3a suposatzen dutela<sup>3</sup>.

Bestetik, ZUen ondorioz ikusi diren eragin psikologikoen artean antsietatea, depresioa, autoestima baxua eta etsipen sentimenduak aurkitzen dira, aipatutako mugikortasun murrizpenagatik, isolamendu sozialagatik eta lan absentismoagatik baldintzaturik aurkitzen direnak<sup>4,7,9</sup>.

Beraz, argi dago ZUak pertsonen bizi-kalitatean (BZK) eragin handia dutela<sup>2</sup>. BZK pertsona bakoitzak osagai objetibo nahiz subjektiboetatik egindako baloraziotik ateratako ongizate-mailaren pertzepzioa bezala definitu daiteke<sup>13,14</sup>. Honek banakoaren osasun fisikoa, egoera psikologikoa, harreman sozialak, autonomia maila eta haren ingurunearekin duen harremana baldintzatzen du<sup>14</sup>.

Aurrekoa kontuan izanik, erizaina gaitz honetan aditua izatea berebizikoa da, batez ere hark zauri kronikoen sendaketan duen garrantzia kontuan hartzen badugu<sup>12</sup>. Azken finean, ultzerek BZKan duten inpaktuaz jabetzea pazienteak ikuspegi integraletik eta modu individualizatuan hartzea ahalbidetzen du<sup>11,12</sup>.

Izan ere, ZUak BZKan duten efektuaz jabetzea ultzeraren alderdi fisikoan soilik fokalizatzea eragotziko dio erizainari<sup>14,15</sup>. Bestetik, honen ezagule izateak BZK zauriaren orbaintzean duen eraginaz ohartzeko baliagarria da, BZK ona zauriaren orbaintze hobekoarekin lotzen baita<sup>15</sup>. Izan ere, emozio negatiboek ZUren kronikotasunean eta errekurrentzian efektua daukate<sup>7</sup>. Alde batetik, autozainketarako gaitasuna baldintzatzen dutelako, estres asko nozitzeak ariketa fisiko gutxiago egiteko, alkohol eta tabako gehiago kontsumitzeko, lo egiteko arazoak izateko eta dieta kaltegarria eramateko aukerak handiagotzen baititu<sup>7,8</sup>. Eta bestetik, ikerketa anitzek adierazi duten bezala, estresa, antsietatea eta depresioa bezalako egoera emozionalak zaurien orbaintze prozesua oztopatzen dutelako<sup>7,8</sup>. Zehazki, 53 pertsonen osaturiko laginarekin egindako azterketa batean ikusi zen depresio eta antsietate maila altuenak zituzten pertsonen (*Hospital Anxiety and Depression Scale*-rekin neurtua) ZUak kronifikatzeko aukera gehiago zituztela<sup>8</sup>.

Modu honetan, erizainen esku-hartzeak eraginkorragoak izango dira<sup>12</sup>. Honek tratamenduaren eraginkortasuna handitzea, bizi-kalitatea hobetzea, orbaintze denbora jaiste eta osasungintzara bideratutako gastuen murrizketa ematea ahalbidetuko du<sup>11</sup>. Izan ere, pertsonaren ongizate subjektiboa artatzea osasun sistemari etekin ekonomikoak ekarri ahal dizkio, ZUak sorturiko estatusuna goiz antzemateak pertsonaren osasun egoera orokorraren narriatzea prebenitu dezakeelako, antidepresiboak bezalako sendageien kontsumoa murrizten lagundu dezakeena.<sup>15</sup>

Beraz, ondorioztatu genezake zain ultzerak bizi-kalitatean duten eragina aztertzea garrantzitsua dela. Bereziki hurrengo urteetan haien intzidentziaren handipena estimatzen delako, populazioaren zahartzeagatik, obesitate tasaren handipenagatik, gaixotasun kronikoen agerpenaren areagotzeagatik eta gabezia-sozialengatik<sup>10</sup>.



# HELBURUA

Zain-ultzerek pertsonen bizi-kalitatean duten eragina eta hura baldintzatzen dituzten faktoreak aztertzea.

# METODOLOGIA

## DISEINU MOTA

Lanaren helburuari erantzuteko literaturaren berrikuspen bibliografiko kritikoa burutu da.

## BILAKETA PROZESUA

Bilaketa prozesua aurrera eramateko hainbat pausu jarraitu izan dira. Lehenik eta behin, helburuan oinarrituz, bilaketa prozesua osatuko duten bi kontzeptu nagusiak eskuratu dira: **zain ultzera** eta **bizi-kalitatea**. Ondoren, kontzeptu hauetatik eratorrita haien sinonimoak atera dira, bai euskaraz, bai ingelesez, eta kontzeptu hauek lengoia naturaletik lengoia kontrolatura pasatu dira. Modu honetan, datu-base ezberdinen deskriptoreak eskuratu dira.

Bizi-kalitateari dagokionez, eskuratu diren deskriptoreen artean “Quality of life”, “Lifestyle”, “Life change events” eta “Calidad de vida” daude. Bestalde, zain ultzerei dagokionez, “Varicose ulcer”, “Venous ulcer”, “Úlcera Varicosa”, “Úlceras vasculares” eta “Úlcera venosa” bezalako deskriptoreak daude. Azkenengo kontzeptu honi lotuta, EMBASEko datu-basean aurkitu diren *EMTREE* antzekoena “Leg ulcer” izan da. Era berean, PsycINFOan eskuratu diren *thesaurorik* antzekoenak “Wound” eta “Skin Disorders” izan dira, bereziki hanketako ultzerei edo zain ultzerei erreferentzia egiten dioten *thesaurorik* ez daudelako. Horregatik, EMBASEn bilaketa egiterakoan lengoia naturala erabili da, zehazki, “varicose ulcer” eta “venous ulcer” kontzeptuekin burutu da bilaketa. Honez gain, Medline, Cochrane eta CINAHL datu baseetan “Ulcer” edo “Skin Ulcer” deskriptoreak ere aurkitu dira, baina haien erabilpena eraginkorra ez izaterakoan hurak ez dira erabili, haiekin eskuratutako emaitza kopurua handiegia eta orokorregia baita. **(Ikusi: I. ERANSKINA: Kontzeptu-taula)**

Gero, ateratako deskriptoreak “AND” boleanoarekin konbinatuz bilaketa-ekuzazioak lortu dira, horrela datu-baseetan bilaketa burutzeko. Era berean, bilaketa argitarapen data filtroarekin burutu da emaitza kopurua zabalegia ez izateko. **(Ikusi: II. ERANSKINA: Bilaketa-estrategia taula)**

Bilaketa Medline, Cuiden, CINAHL, EMBASE, PsycINFO, LILACS, IME eta WOS (*Web of Science*) datu baseetan burutu da. Era berean, hainbat aldizkarietan eskuzko bilaketa burutu da: *Journal of Tissue Viability*, *International Wound Journal* eta *Journal of Wound Care*, lanaren ikerketa-gaiarekin bat baitator. Honez gain, ebidentzia zientifikoan oinarritutako Chrocrane Data Base, NICE, UpToDate, JBI eta RNAO-ko erakundeetan bilaketa egin da. **(Ikusi: II. ERANSKINA: Bilaketa-estrategia taula)**

## **BARNERATZE ETA KANPORATZE IRIZPIDEAK**

### ● **BARNERATZE-IRIZPIDEAK**

- **Hizkuntza:** Gaztelera, ingeles, portugueses edota euskarazko idatzitako artikulua izatea, ulertzen ditudan hizkuntza direlako.
- **Publikazio urtea:** Ikerketen emaitzak ahalik eta eguneratuen egoteko 2012-2022 urte bitartean publikatutako artikulua soilik hartu dira kontuan.
- **Lan-mota:** Lanaren emaitzak fidagarriak eta oinarri zientifikoak izateko, hau burutzeko bakarrik barne hartuko dira ebidentzia zientifikoan oinarritutako praktika klinikoko gidak, ikerketa deskriptibo eta analitikoak, ikerketa transbertsalak, meta-analisiak, erribisiko bibliografiko sistemikoak, ikerketa kuantitatiboak eta ikerketa kualitatiboak.
- **Lagin mota:** Partehartzaileek lanaren helburuari erantzun ahal izateko zain ultzera bat edo gehiago nozitu behar dute. Bestetik, ikerketen erantzunak fidagarriak izateko, partehartzaileek gaitasun kognitiboaren murrizpenik ezin dute izan. Bukatzeko, partehartzaileek 18 urte baino gehiago izan behar dituzte, ZUak adin horretik aurrera eman ohi direlako.

### ● **KANPORATZE-IRIZPIDEAK:**

- Barneratze-irizpideak ez betetzea.
- Artikuluaren testu osoa (*Full text*) eskuragarri ez egotea.
- Gaiarekin bat ez datozen artikulua, erabilgarriak ez direlako.
- Zain etiologiako lesioak ez diren zauriak, zain-ultzerak baitira lanaren aztergaia.
- Editorialak eta gutunak baztertu dira ebidentzia zientifiko nahiko ez izateagatik.

## ARTIKULUEN AUKERATZE PROZESUA

Hasteko, aurretik aipatutako bilaketa-ekuazioak aurrera eraman dira, eskuratutako emaitza kopurua 636 izanik.

Ondoren, errepikatutako 119 artikulua baztertu ostean, barneratze irizpideak eta kanporatze irizpideak jarraituz, aurkitutako artikuluen izenburuak eta *abstract*-ak irakurri dira. Modu honetan, helburuarekin bat egiten ez duten edo barneratze-irizpideak betetzen ez dituzten 486 artikulua baztertu dira.

Gero, aukeratutako artikuluen *Full text*-ak eskuratu dira. Testu osoa aurkitu ezin izan diren 4 artikulua baztertu dira. Testu osoa eskuratu ondoren, artikulua irakurri dira ikerketaren helburua erantzuteko erabilgarriak diren ikusteko eta honekin bat egiten ez duten 21 artikulua baztertu dira. Honen ostean, eskuratutako artikuluen irakurketa kritikoa burutu da eta artikulua 1 baztertu da. Modu honetan, literaturaren berrikuspen hau egiteko 15 artikulua eskuratu dira. **(Ikusi: VI. ERANSKINA: Irakurketa kritikorako tresna)**

Era berean, bilaketa prozesua fluxu-diagraman laburtu da. **(Ikusi: V. ERANSKINA: Fluxu-diagrama)**

Azkenik, artikulua ororen informazio esanguratsua laburpen-taletan sartu da, ondorengo eremuetan antolatuta: egileak, urtea, helburua, diseinu mota, lagina eta emaitzak. **(VIII. ERANSKINA: Kontsultatutako literaturaren errebisio-taula)**


## ZUHAITZ KATEGORIALA

Artikuluen hautaketa nahiz analisia burutu ostean, bertatik eskuratutako informazioa kategoriatan ezberdinetan sailkatu da helburuari erantzuteko: Alde batetik, zain-ultzera bizi-kalitatean duen inpaktuaren balorazio objektiboa burutu da ikerketa ezberdinetako *Medical Outcomes Study 36 Item Short Form* (SF-36) eta *Charing Cross Venous Ulcer Questionnaire* (CCVUQ) eskaletatik ateratako emaitzak analizatuz eta alderatuz.

Bestetik, zauriak bizitzako arlo ezberdinetan duten inpaktua aztertu da ikuspuntu subjektiboago batetik. Zehazki, arlo fisikoan, psikologikoan, sozialean eta ekonomikoan. Bukatzeko, BZKren okerpenarekin lotutako kanpo-faktoreak aztertu dira: adina eta egoera ekonomikoa, zauriaren ezaugarriak eta zauriaren iraupena. **(Ikusi: IX. ERANSKINA: Zuhaitz-kategoria)**

# EMAITZAK ETA EZTABAIDA

Lan honen helburua zain ultzerak pazienteen bizi-kalitatean duten eragina aztertzea denez, eragin hori objetiboki nahiz subjektiboki analizatu da. Alde batetik, azterketa objetiborako, SF-36 eta CCVUQ eskalen bidez ZUak pairatzen dituzten pertsonen bizi-kalitatearen balioak eta dimentsioak aztertu dira. Bestetik, ultzerak pertsonen arlo fisiko, psikologiko, sozial eta ekonomikoan duen eragina aztertu da. Honez gain, ZUak dituzten pertsonen BZK baldintzatzen dituzten zenbait faktore analizatu dira; zehazki, adina eta egoera ekonomikoa, zauriaren ezaugarriak eta ultzeraren iraupena.



- Ikerketa Kuantitatiboak
- Ikerketa Kualitatiboak
- Errebisio sistematikoak

Bilaketa burutu ostean lan honen helburua erantzuteko 15 artikulua erabili dira: 10 azterketa kuantitatibo<sup>16-25</sup>, 4 azterketa kualitatibo<sup>26-29</sup> eta errebisio bibliografiko bakarra<sup>30</sup>.

Lana burutzeko erabilitako laginari dagokionez, ikerketa kuantitatiboetakoak handiagoak dira, handiena 204koa eta txikiena 34koa izanik<sup>19,21</sup>. Ikerketa kualitatiboetan, berriz, laginak txikiagoak dira, handiena 36koa eta txikiena 8koa direlarik<sup>26,27</sup>. Hurak osatzen dituzten partaideek zain etiologiako ultzera bat edo gehiago diagnostikaturik duten 18 urte baino gehiagoko pertsonak dira. Parte-hartzaile horien egoera kognitiboa egokia da, ikerketetan hura *Lobo Mini Mental* testaren bidez edo modu eraginkorrean komunikatzeko gaitasunaren arabera neurtu delarik<sup>16-30</sup>.

Aipatutako ikerketak 11 Brasilen<sup>16-20,23,25,27-30</sup>, 1 Polonian<sup>24</sup>, 1 Erresuma Batuan<sup>26</sup>, 2 Espainan<sup>21,22</sup> eta 2 Portugalen<sup>17,18</sup> burutu dira. Horietatik, bi 2012an<sup>16,25</sup>, hiru 2013an<sup>23,26,28</sup>, bi 2014an<sup>18,19</sup>, bat 2015an<sup>24</sup>, bat 2016an<sup>20</sup>, bat 2017an<sup>21</sup>, hiru 2018an<sup>17,27,30</sup>, bat 2019an<sup>29</sup> eta beste bat 2020an<sup>22</sup> egin dira.



# 1. INPAKTUAREN BALORAZIO OBJETIBOA: ESKALEN AZTERKETA

Ikerketa kuantitatiboetan oinarrituz, zain-ultzerek pazienteen bizi-kalitatean duten eragina ikuspuntu objetibo batetik aztertuko da. Zehazki, bi eskalen emaitzen azterketaren bitartez: SF-36 eta CCVUQ.

## 1.1. MEDICAL OUTCOMES STUDY 36 ITEM SHORT FORM (SF-36)

SF-36 1992. urtean balidatu zen bizi-kalitatea neurtzeko eskala generikoa da<sup>31,32</sup>. Honek 2 dimentsiotan sailkatzen diren 8 domeinuetako 36 galdera ditu. Dimentsio fisikoa gaitasun funtzionala, osasun orokorraren pertzepzioa, alderdi fisikoak, gorputzeko mina eta energia eta bizitasunaren domeinuek osatzen dute. Osasun mentaleko dimentsioan, berriz, alderdi emozionalak, gaitasun soziala eta osasun mentalaren domeinuak aurkitzen ditugu. Dimentsioetako baloreak hurak osatzen dituzten domeinuen batzbestekoa eginez eskuratzen da. Era berean, puntuazioa 0-100 bitartean dago eta hura item bakoitzean emandako erantzunak gehituz eskuratzen da. 0ko puntuazioa egoera txarra bezala hartzen da eta 100 egoera onena bezala<sup>17,18,19,25,31,32</sup>.

Errebisio honetako 4 ikerketetan erabili da eskala hau. Ikerketa hauen laginen ezaugarri soziodemografikoei dagokionez, partaideen artean genero femeninoa, 60 urte baino gehiago izatea eta hezkuntza maila baxua nabarmentzen dira<sup>17,18,19,25</sup>.

Ikerketa horietan eskalaren batz-besteko puntuazio orokorrak 40-50 tartean kokatzen dira. Era berean, hauetan kaltetuen aurkezten diren domeinuak gaitasun funtzionala eta alderdi fisikoarena izan dira<sup>17,18,19,25</sup>.

Brasilen eta Portugalen burutako ikerketak alderatuz gero, ikusten da Portugalen puntuazioak baxuak diren arren haren baloreak Brasilekoak baino altuagoak direla<sup>17,18</sup>. Izan ere, 2012ko ikerketan, Portugalen gaitasun funtzionalaren puntuazioa 41koa eta alderdi fisikoarena 40.71koa den bitartean, Brasileko partaideek 19.75ko eta 7.08ko puntuazioak aurkezten dituzte hurrenez hurren<sup>18</sup>. Era berean, 2014an egindako ikerketan Portugaleko batz besteko puntuazioa gaitasun funtzionalean 30koa eta alderdi fisikoetan 12.5koa da, Brasilekoak gaitasun funtzionalean 30koa eta alderdi fisikoan 0koa den bitartean<sup>17</sup>. Herrialdeen arteko puntuazioaren ezberdintasun hau besteak beste adinaren eta egoera ekonomikoaren faktoreak izan daitezkeela kontuan hartu behar dugu<sup>17,18</sup>.

Honenbestez, ZUaren ondorioz BZKren narriadura badagoela ikusi daiteke. Izan ere, ZUak dituztenen eta hurak ez dituztenen puntuazioak konparatzen dituen 204ko lagineko ikerketa batean, ZUak dituztenek eskalan puntuazio baxuagoak aurkezten dituzte. Ezberdintasun hori 5 domeinuetan estadistikoki esanguratsua da ( $p < 0,01$ ). Zehazki, gaitasun fisikoaren domeinuan ultzerak dituztenek 14.85ko puntuazio eskuratu duten bitartean ultzerarik ez dituztenek 38.51ko balorea lortu dute. Era berean, alderdi fisikoaren domeinuan, ultzerak dituztenek 4.75ko eta ultzerarik gabekoen 29.09ko emaitzak eskuratu dituzte. Bestalde, osasun mentaleko dimentsioan, orokorrean baloreak altuagoak diren arren, ZUak dituzten partaideen puntuazioak beste taldearena baino baxuagoak dira<sup>19</sup>.

Hala ere, C4-C6 mailan kokatzen diren pertsonak C1- C3an kokatzen direnekin alderatu dituen beste ikerketa batean, lehengo talde honen puntuazioak orokorrean baxuagoak diren arren, ezberdintasun estadistiko esanguratsua ( $p < 0.05$ ) soilik energia eta bizitasunaren domeinuan eman da<sup>25</sup>. Emaitzen ezberdintasun hau laginketaren ondorioa izan daiteke. Izan ere, lehenengo ikerketan ultzerak dituztenen eta ez dituztenen kopurua parekoa den arren (100 partaide ultzerekin eta 104 ultzerarik gabe), bigarren ikerketan ez. Laginketa mugen ondorioz, ikerketa honetan ultzerarik gabeko partaideen kopurua hurak dituztenak baino baxuagoa da (50 pertsona ultzerekin eta 16 ultzerarik gabe)<sup>19,25</sup>. Horregatik, aurkeztutako datu hauek egiaztatzeko ikerketa gehiagoren beharra egongo litzateke.

Honenbestez, ikusi daiteke BZK narriadura aurkezten dutela ZUak zituzten emakumeek, bereziki dimentsio fisikoan. Era berean, CEAP graduaren eta BZKren arteko erlazioa estadistikoa dagoela ikusi dezakegu, haren gradua zenbat eta altuagoa izan gero eta BZK txarragoa emanez. Hau da, ZG loturiko sintomatologia (edema, barizeak, ultzerak,...) zenbat eta larriagoa izan, gero eta kaltetuago aurkitzen da pertsonaren egunerokotasuna eta ondorioz haien BZK.

## **1.2. CHARING CROSS VENOUS ULCER QUESTIONNARE (CCVUQ)**

CCVUQ zain ultzerak dituzten pazienteen bizi-kalitatea neurtzeko eskala espezifikoa da eta errebisio honetako 3 artikulutan erabili da<sup>20-22</sup>. 2000 urtean balidatu zen eskala hau, ZUren eragina pertsonen BZK-an neurtzeko eskala espezifikoa egokia da, propietate psikometriko egokiak izatea ez ezik, neurketa modu errazean eta denbora laburrean burutzea ahalbidetzen duelako. Era berean, Espainia mailan ZUaren inpaktua BZK-an neurtzeko moldatu den eta jatorrizko bertsioarekin konparagarria den eskala espezifikoa (CCVUQe) bakarra da, haren balidazioa 2010an Renata Virginia González-Consuegra eta José Verdúk egin zutelarik<sup>33</sup>. Modu honetan, gaztelerara moldatutako eta balioetsitako ZUak dituzten pertsonen BZK neurtzeko eskala espezifikoa bakarra da<sup>21,22</sup>.

Eskalak 4 domeinu ditu: interakzio soziala, etxeko jarduerak, kosmesi-a (edertasun fisikoa) eta egoera emozionala. Horietako domeinu bakoitzak 21 item ditu eta item bakoitzak 5-6 maila. Puntuazioa 0-100 bitartean dago, 0 egoera hobereana eta 100 egoera txarreana izanik<sup>20-22</sup>.

Eskala hau erabili duten ikerketetako laginari dagokionez, guztietan 60 urte baino gehiago izatea eta hezkuntza maila baxua nabarmentzen dira ezaugarri moduan<sup>20-22</sup>. Sexuari dagokionez, haietako bitan emakume kopurua nagusitzen da<sup>20,22</sup>. Gonzalez de la Torre *et al.*<sup>21</sup> burututako ikerketan, berriz, gizonezkoen kopurua handiagoa da, horren arrazoia ikerketarako eskuratutako lagin txikia izan daiteke. Izan ere,, autoreek adierazi duten bezala, barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen dituen tamaina egokiko lagina eskuratzeko zailtasunak izan zituzten. Hala ere, CCVUQ eskala erabilitako ikerketen emaitzetan ez da generoa eta bizi-kalitatearen arteko erlazio estadistikorik aurkitu<sup>20-22</sup>.

Ikerketa hauetan, eskalaren batz-besteko puntuazio baxuena 47.4 eta altuena 60.58 izan dira<sup>20,21</sup>. Errebisatutako 3 ikerketetan kaltetuen aurkezten diren domeinuak egoera emozionala eta kosmesiaren izan dira, haien puntuazioak 50 baino altuagoak izanik<sup>20-22</sup>. Madrilen 93ko laginarekin burututako ikerketan, egoera emozionalaren domeinua 65.1eko puntuazioarekin eta kosmesiaren domeinua 58.3ko emaitzarekin izan dira kaltetuen aurkeztu diren domeinuak<sup>21</sup>. Emaitza hauek Gran Canariasen burututako beste ikerketa baten emaitzekin parekatu daitezke, non 77.67ko puntuazioa eskuratu da egoera emozionalaren domeinuan eta 63.91ko emaitza kosmesiaren domeinuan<sup>22</sup>. Era berean, bi ikerketa hauetan egoera emozionalaren domeinua aztertzerakoan partaideen artean zauriaren orbaintzearen inguruan asko pentsatzen eta larritzen direla ikusi da<sup>21,22</sup>.

Beste alde batetik, puntuazio altuenak, eta beraz, eskala honen arabera BZKren alderdiak gutxien kaltetutakoak interakzio soziala eta etxeko jarduerak izan dira<sup>20-22</sup>. de Oliveira Araújo *et al.*-en<sup>20</sup> ikerketan etxeko jardueraren domeinuan 42-45.4 tarteko eta interakzio sozialean 48.1-48.6 tarteko puntuazioak aurkezten dira. Era berean, Gonzalez de la Torre *et al.*-en<sup>21</sup> ikerketan interakzio sozialean 54.1ko eta etxeko jardueran 47.47ko puntuazioak eskuratu ditu domeinu hauetan.

Aurrekoa kontuan izanik, BZKren okertzea ikusten da ZUak dituzten pazienteetan. Ultzeragatik itxura fisikoaren eta egoera emozionalaren domeinuak kaltetuen aurkezten dira. Egoera emozionalaren puntuazioa estuki lotuta egon daiteke partaideek dituzten ultzera sendatuko ez den pentsamendu errepikakorrek eta orbaintze motelarekiko sentitzen duten frustrazioarekin. Gainera, ikusi den kosmesiaren alterazioa pertsonaren egoera emozionala ere kaltetu dezake.

## 2. ZAURIAREN INPAKTUA BIZITZAKO ALDERDIETAN

Ikerketa kualitatiboetan oinarrituz, BZK balditzatzen duten alderdi ezberdinak eta ZUak horietan duten inpaktua aztertu da. Modu horretan, zain-ultzerak pairatzea den bizipen subjektiboa ulertzea ahalbidetuko du. Hala ere, bizipen subjektibo horiek ikerketa kuantitatibo ezberdinen emaitzekin alderatuko dira ere.

### 2.1. ALDERDI FISIKOA

ZUren ondorioz baldintzaturik aurkitzen den alderdietako bat fisikoa da, mugikortasuna eta atsedenaldia besteak beste. Ondorioz, hurrengo ataletan errebisatutako ikerketan hauen inguruan aipatutako aztertuko da.

#### 2.1.1. MUGIKORTASUNAREN MURRIZPENA

Errebisio honetako ikerketa kualitatiboetako partaide anitzek ultzerari loturiko faktore ezberdinengatik mugikortasunaren murrizpena adierazi dute<sup>26,27,30</sup>. Limitazio hori bereziki tratamendurako erabiltzen den konpresio terapiari atxikitzen diote<sup>26</sup>. Haatik, zenbait partaidek ZUei loturiko sintomatologiari (edemari eta minari bereziki) lotzen dizkiote muga fisiko horiek<sup>27</sup>.

*“Kalera paseatzera egunero ateratzen nintzen, baina nire arazoak sortaraziko mina dela eta hori egiteari utzi behar izan nuen”<sup>27</sup> (35 Pazientea, Lopes Joaquim et al. 2018)*

*“Hanka edematizaturik daukat beti, hura mugitzea ekiditzen didana. Ezin dut ezer egin, ezer ez!”<sup>27</sup> (7 Pazientea, Lopes Joaquim et al. 2018)*

Izan ere, pertsonak ultzeraren sintomatologia nahiz konpresio-bendajeak sorturiko ezerosotasuna ibiltzeko eragozpena bezala deskribatzen dute<sup>26</sup>. Era berean, ikerketa kualitatibo ezberdinetako sarritan errepikatzen den kexa bendajeen ondorioz higiena burutzeko zailtasuna izan da<sup>26,30</sup>.

66 pertsonak osaturiko ikerketa kuantitatibo batean, emakumeen %85a eta gizonezkoen %73a ZUen ondorioz gutxienez 3 hilabeteko sedentarismoko denboraldiak adierazi dituzte<sup>25</sup>. ZUak dituzten zenbait pertsonak sedentarismo denboraldiak erortzeari dioten beldurrari atxikitzen diote, horren ondorioz ultzera berri bat edo daukatena okertu dezaketelako<sup>25,26,30</sup>.



*“Supermerkatura joatearen beldur naiz. Bertan jendea erosketa-orgarekin edonola dihoa eta nire hankan eman eta zauriren bat eragingo didatelaren beldur naiz”<sup>26</sup> (“Margaret”, Green et al. 2012)*

*“Ezin dut asko ibli, altxatzen naizenean erortzearen beldur naizelako”<sup>26</sup> (“Margaret”, Green et al. 2012)*

Modu honetan, pertsonen egunerokotasuneko ekintzak eta pertsonen aktibitate fisikoaren maila ZUen ondorioz baldintzaturik dagoela ikusi daiteke.

### **2.1.2. ATSEDENALDIA**

Ikerketa kualitatiboetako zenbait partaidek ZUren ondorioz lokartzeko edota kalitatezko atsedena hartzeko zailtasuna adierazi dute<sup>26,27,30</sup>. Zailtasun hau minari nahiz azkuari lotzen diote<sup>19,30</sup>. Hala ere, azkura kutsu positiboa dauka, zauriaren orbaintzearekin lotzen baita<sup>30</sup>.

*“Azkurea eta minagatik ezin dut lo egiten gauean. Hanka goratz jartzen dut sintomak arintzeko, baina askotan ez da eraginkorra”<sup>27</sup> (5 Pazientea, Lopes Joaquim et al. 2018)*

*“Ohean zaudenean lokartzea eragozten dizu”<sup>26</sup> (“Ellen”, Green et al. 2012)*

Era berean, atsedenaldirik txarraren ondorioz, pertsonak ahulezia eta egunean zehar ondo funtzionatzeko ezgaitasuna adierazi dute<sup>30</sup>. Poloniako 42ko laginarekin burututako ikerketa kuantitatibo batean, CEAP eskalan C6 mailakoek C4koak baino energia maila baxuagoak eta ondo atsedena hartzeko zailtasun gehiago aurkeztu dituzte. Honen ondorioz, zain ultzera aktiboa izatea atsedenaldirik arazoekin loturik egon daitekeela kontuan hartu behar da<sup>24</sup>.

Alabaina, 204ko lagineko ikerketa kuantitatibo batean atsedinari dagokionez ZU pairatzearen eta lo orduen arteko erlazio estadistikorik ez da aurkitu, partaideen %77.7ak 6 ordu edo gehiagoko loaldiak adierazten baititu<sup>19</sup>. Era berean, 171eko lagineko beste ikerketa batean partehartzaileen %86a 6 ordu baino gehiagoko kalitatezko loaldiak adierazi dituzte<sup>20</sup>. Ondorioz, ZUk atsedenaldirik baldintzatu dezakeen osasun egoera izan daitekeen arren, baiztapen hau berretsi baino lehen azterketa sakonagoen beharra dago.

## 2.2. ALDERDI SOZIALA

Berrikuspen hau burutzerakoan ikusi den bezala, pertsonak ZU haien harreman sozialentzako, bizitza pertsonalarentzako eta profesionalarentzako oztopo bezala pertzibitzen dute<sup>26-30</sup>.

Alde batetik, aztertutako ikerketa kualitatiboetako partaideek adierazi duten limitazio fisikoak, mina edota usain txarrak sozialki isolatzera eramaten ditu. Faktore horien ondorioz gertakizun sozialetara joateko gogo gabe sentitzen dira. Era berean, besteek ulteraren usain txarra nabaritzeak lotsa ematen diela salatu dute ikerketen partehartzaileek<sup>26,27,28,30</sup>.

*“Mesara joan ohi nintzen baina nire ondoan zegoen pertsona nire zauriaren kiratsa usaindu zezakeela konturatu nintzenean, joateari utzi nion”<sup>30</sup> (Phillips et al. 2017)*

*“Etxetik ateratzen naizenean ez naiz besteengana asko hurbiltzen, zauriak sortaraziko usain txarra hautemango duten beldur naizelako”<sup>26</sup> (“Ellen”, Green et al. 2012)*

Are gehiago, partaideetako batek ZU duen hanka kartzelarekin alderatzen du, aurretik burutzen zituen aktibitateak egin ezin dituen haren gatibu sentitzen delako<sup>27</sup>. Gainera, aurretik aipatutako ZUren ondoriozko atsedenaldirik txarrekin sozialki isolatzeko aukerak handitzen ditu, pertsonak egunean zehar galdutako loaldi orduak berreskuratzen baititu<sup>26,30</sup>. Zenbait partaidek sozializazioaren murrizpena kontsulta anitzera joatearekin lotzen dute ere, bereziki ZU kroniko edo errekurrentzia handikoak dituztenek<sup>26</sup>.

*“Lehen auzoko elkartean eta elizako ekintzetan parte hartzen nuen baina zauria dela eta aktibitate horiek alde batera utzi behar izan nituen”<sup>28</sup> (7 Pazientea, da Silva et al. 2013)*

Arrazoiak direnak direla, 51ko lagineko Brasilen burututako ikerketa kuantitatibo batean ikusi den moduan, 36 (%70,5) partaidek haien aisialdiko ekintzak eta haien egunerokotasuneko aktibitateak burutzeko gaitasuna ZUgatik kalteturik dagoela adierazi dute<sup>16</sup>. Horren ondorioz, partaide anitzek ZUren orbaintzea itxaroten ari dira, haien ohiko bizitza soziala eta aisialdi ohiturak berreskuratzeko<sup>28</sup>.

*“Hobeagotzearen esperantza daukat, elizan burutzen nituen aktibitateetara bueltatzeko”<sup>28</sup> (1 Pazientea, da Silva et al. 2013)*

*“Beno... Nire zauria itxita ikusi nahi dut... neskalaguna eskuratzeko eta lagunekin garagardo bat hartzeko...”*<sup>28</sup> (2 Pazientea, da Silva et al. 2013)

Bestetik, ZU familia harremanetan duen inpaktuari dagokionez, egoera ezberdinak aurkitzen ditugu. Aurretik aipatutako ikerketa kuantitatiboan 17 (%33,3) partaidek ZU familian inpaktu negatiboa eta 39ek (%76,4), aldiz, efektu positiboa adierazten dute. Partehartzaileek efektu positibo hau zaintzaile nagusiak, orokorrean semeak, haiekiko kezka gehiago erakustearekin lotzen dute<sup>16</sup>. Hala ere, aztertutako zenbait ikerketa kualitatiboetan ZU familia ikusteko oztopo bezala hautematen dute partaideek<sup>28,30</sup>. Era berean, zenbaitek ZUgatik haien senideentzat lan-karga bilakatzearen ondorioz triste sentitzen direla adierazi dute<sup>26</sup>.

*“Nire arrebak igandean bazkaltzera gonbidatzen nau, baina sarritan gogo gabe sentitzen naiz zauriak eragindako mina dela eta”*<sup>28</sup> (3 Pazientea, da Silva et al. 2013)

*“Ekintza asko egin ohi nituen nire familiarekin. Orain ez naiz kalera ateratzen, nire hankaz lotsaturik sentitzen naizelako.”*<sup>27</sup> (35 Pazientea, Lopes Joaquim et al. 2018)

Eskuratutako datuak direla, ZUen ondorioz pertsonen sozializazioa baldintzaturik aurkitzen dela eta isolatzeko joera ematen dela ikusten da, BZK pertzepzio negatiboarekin lotzen dena.

### **2.2.1. SEXUALITATEA**

ZUren ondorioz harreman sexualak nahiz bikotea aurkitzeko zailtasuna ikusi da ikerketa kualitatiboetako partaide gazteen artean.<sup>28</sup> Ultzera nahiz bendajeek sortarazitako lotsa eta autokonfiantza galeraren ondorioz, aktibitate sexualen gutxitzea nabaritu baitute<sup>26,28,30</sup>.

Era berean, partaide batek bikotea aurkitzeko zailtasuna pertsonak haren hanka ikusterakoan hura lan karga handia suposatuko duelaren usteari atxikitze dio<sup>28</sup>.

